

GIZA LIBURUTEGIAK
2019

EMAKUME
ASKE ETA
BORROKARIA
NAIZ

CH. N.

GIZA LIBURUTEGIAK 2019

Pertsona bakoitza liburu bat da. **"Giza Liburutegien"** bitartez kultura eta bizipen desberdinak ezagutuko dituzu.

"Giza liburutegiak" Kopenhagen 1993 urtean sortu zen proiektu bat da. Saio hauen helburua diskriminazioa murriztea da, desberdintasunari balorea emanaz eta elkarrizketa eta tolerantzia bitartez, bizitza estilo edo kultura desberdinetatik datozen pertsonenganako ulermena bultzatzen da, ikaskuntza sustatuz.

Saio bakoitzean parte hartzaileak taldean esertzen dira eta aurkezpen eta elkarrizketa gurutzatuak burutzen dituzte. **"Giza Liburutegien"** protagonistak euren kontakizunak partekatzen dituzte, elkarrizketa eta harremanen bitartez. Honela hizlaria **"liburu"** bilakatzen da eta entzulea berriz **"irakurle"**.

CH. N. eskertu nahi dugu Jatorkin elkartearen eskutik etorri izanagatik bere esperientzia partekatzera. Eskerrik asko zuen ekarpenarengatik.

Kontakizuna testura moldatzea: Kattalin Miner

Emakume aske eta borrokaria naiz

CH. N-k 32 urte ditu eta Marokotik dator. Duela urte eta erdi iritsi zen Euskadira, Tolosan bizi da, eta emakume gerlari eta aske baten kontakizuna ekarri digu, haurra zenetik gaur egun arte askatasuna bilatzen duen neska baten historia.

CH. N. txikitatik sentitu zen arraro, betidanik sentitu zuen bera ez zela bere inguruko jendea bezalakoa. Tangerren hazi zen. Eskolatik gertu bizi zen, baina ez du oroitzapen samurrik: adibidez, eskolatik berandu iristen zenean, etxean zigortu egiten zuten. CH. N-ek ez zituen zigorrak ulertzen. Horrez gainera, ez zuen ulertzen zergatik jantzi behar zuen berak buruko zapia 8 urtetik aurrera, eta eskolako gainerako neska guztiek ez. Zapiaren ondorioz, eskolakideek eta irakasleek iseka eta eraso egiten zioten.

CH. N-ren ama, lehenik, gizon batekin ezkondu zen, bi ume ekarri, eta, ondoren, CH. N-ren aitarekin ezkondu zen, eta harekin izan zituen gainerako umeak. CH. N-k gogoratzen duenez, anaia zaharretako bat zapaltzaile hutsa zen, eta beste anaia-arreben bizitza kontrolatzen zuen: adibidez, ez zien kalera ateratzen uzten, ez eta kanpoko bisitarik jasotzen eta kanpokoarekin harremanik izaten ere. CH. N-k ezin zuen ulertu zergatik onartzen zuten gurasoek anaiaren jarrera.

Erlijioak eragin handia izan zuen neskaren haurtzaroan: erlijioaren ondorioz, ezin zion ezetzik esan gurasoei; erlijioaren ondorioz, ezin zuen ezer galdetu ez iritzirik agertu. CH. N-ren anaia-arrebek isil-isilik eusten zioten, baina neskak uste zuen bazuela zer esana, eta gauzak zalantzan jarri nahi zituen.

Anaia zaharrenak CH. N. jipoitzen eta kontrolatzen zuen, konturatu baitzen neska hazten ari zela, ezetz esaten zuela eta matxinatzen zela. Hala, CH. N-k zapalkuntza eta jazarpena pairatzen zituen; kalean zegoenean ere, ez zuen askatasunik, izan ere, anaiak edozer txikikeriagatik egiten baitzion eraso, adibidez, lankide batekin hitz egiteagatik.

Garai hori guztia amesgaizto bat iruditzen zaio CH. N-ri. Gogoan du ahizpei esaten ziela anaia hiltzeko prest zegoela, bai eta hilketaren ondorioz espetxera joateko ere, zeren, hala, ahizpak lasai biziko ziren, anaiaren jipoirik gabe. Gerora, ahizpek barre egin izan dute pasadizo hura oroituta, baina garai benetan txarra izan zen, hain txarra, ezen gure protagonistak, lokartu aurretik, Jainkoari eskatu izan baitzion berriro inoiz ez esnatzeko.

Handik tarte batera, anaia Ceutara joan zen lanera, eta etxeko egoera hobetu zen. Hala ere, gure protagonistak helburu argi bat zuen: gurasoen etxetik ateratzea. Horretarako, ezkontzea zen aukeratu zuen irtenbidea. Hala, zentro batean informatika ikasten hasi eta han ezagutu zuen gaur egun senarra duen gizona.

Senarrari ondo iruditzen zitzaion CH. N. kalera ateratzea, lanean aritzea eta bere bizitza egitea, nahiz eta presio handia jaso zuen gizartearen eta familiaren aldetik, askatasun horri kontra egiteko.

Nolanahi ere, gure protagonistak, Marokon bizi bitartean, presio handia jaso zuen gizartearen eta familiaren aldetik. Eta berak askatasun gehiago opa zion bere buruari eta bere alabari. Horregatik, Euskal Herrira etorri ziren.

Hona iritsi ostean, CH. N-en bizitzak aurrera egin du: gehiago ikasi nahi du, jendea ezagutu, beste mundu-ulerkera batzuk ulertu, ikasketekin jarraitu eta, batez ere, alabari etorkizun hobea eskaini. Ikas dezala, bere bizitza egin dezala, bidaia dezala eta nahi duen moduan bizi dadila: horixe opa dio alabari, eta horren alde borrokatzen da egunero, gerlari bat bezala.

GIZA LIBURUTEGIAK BIBLIOTECAS HUMANAS

2019



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural